

Historia, Ondare eta Herritartasunaren kalitate handiko Hezkuntzari buruzko adierazpena

15 printzipio Historiak gazteen garapenean egiten duen ekarpen esanguratsua aitortzeko

Iraganaren erabilera okerrak saihestuz

Konplexutasuna – Ikuspuntu aniztasuna – Pentsamendu kritikoa

1. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntza ez da saiatzen iraganari buruzko egia bakarra transmititzen. Hala ere, egia historikora ahal bezain beste hurbiltzea du helburu, ahal bezain beste gertaera eta ebidentzia sendoetan oinarrituz eta objektibotasuna bilatuz. Narratiba historikoek geruza eta interpretazio ugari dituztela ulertarazten du, eta narratiba horiei buruz hausnartzera eta kritikoki pentsatzera bultzatu.

2. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak mito historikoak eta estereotipoak desagiten ditu, “harrotasun eta minen ispilu” tradizionala aztergai jarritz eta hezitzaile eta ikasleengan euren berezko logika eta adierazpen kulturei buruzko gogoeta bultzatuz. Eredu tradizional horretan aintzat hartzen dira, batetik, nazioaren sufrimendua eta, bestetik, nazio harrotasuna, baina beste batzuei eragindako minari buruzko eta nazioaren narratibekin bat egiten ez duten guneeetako historiak saihestu egiten ditu.

3. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak iragana ezberdin hautemateko aukeraz ohartarazten du, hain zuzen, zenbait ezaugarriren baitan: pertsonaren gizarte, sexu eta belaunaldien arteko aurrekariaren arabera, bai eta komunitate etniko, linguistiko eta erlijiosoaren partaidetzaren arabera, eta gizartearen mundu-ikuskera ezberdinen arabera. Honek guztionek sustatzen du jendea eta gertaerak bere balioen eta garaiaren testuinguruan balioetsi behar direla onartzea.



European Association of History Educators

4. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak arduraz jorratzen ditu gai sentiberak eta gatazkatsuak, iraganari buruzko norabide bakarreko ikuspegi partzial eta politizatua eragotziz eta bere izaera konplexu eta multidimentsionala eraikiz. Honek eskatzen du hizkera hunkigarri, subjektibo eta erasokorrek saihestea eta kontzeptu inpartzialen erabilera sustatzea, narratiba historiko problematikoak zuritu edo leundu gabe, iraganaren arrosa-koloreko irudia ekiditeko.

5. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak banandutako gizarteetan epe luzeko adiskidetzea sustatzen du, enpatia trebetasunak eta, gorroto eta indarkeriarik gabe, iraganari buruzko interpretazioez eztabaidatzeko gaitasuna garatuz.

[Iraganaren ikasketa inklusiboa sustatuz](#)
Dibertsitatea – Elkarrizketa – Berdintasuna

6. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak aitortzen du bere izaera lotuta dagoela egungo esperientzia eta erronkekin, xede izanik ikasleei bizi diren mundua ulertzen laguntzea eta beraien etorkizuneko orientazioa sostengatzea. Beraz, iraganaren ikaskuntza, uste horren arabera bereziki, hiritar-kontzientzia eta kontzientzia politikoa garatzeko tresna da, bai eta historia eta herritartasuna uztartzeko lagungarri ere, bata bestearekiko eskolako ikasgai esanguratsuak izanik.

7. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak iraganaren ikaskuntzari dagozkion ikuspegi globalak aintzat hartu eta askotariko dimentsioak barnebiltzen ditu: politikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala eta ingurumenekoa. Gertaera nagusiak aztertzeaz gainera, epe luzerako gaien ikasketak eta gai garrantzitsuak aintzat hartu eta jorratzen ditu: eguneroko bizitza, natura, generoa, giza eskubideak eta migrazioa.



European Association of History Educators

8. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak giza balio, sinesmen, jarrera eta joera hainbat du helmuga, esaterako: demokrazia, tolerantzia, giza eskubideekiko begirunea, elkarrekiko ulermena, gizarte-kohesioa, elkartasuna, askatasuna, adorea, aukera berdintasuna eta erantzukizuna, baina baita maitasuna eta adiskidetasuna ere.

Hala ere, kontzeptu negatiboak ere hartzen ditu aintzat, esate baterako, estereotipoak, aurreiritziak, ideologi-lerrokatzeak, xenofobia, arrazakeria, indarkeria eta gorrotoa. Izan ere, beraiek guztiak ere giza portaeren zati dira, eta beharrezkoa da beraiei buruz hausnartzea.

9. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak aniztasun kulturala, erlijiosoa eta linguistikoa uztartzen ditu, zertarako eta, kohesio soziala eta inklusioa eragiteko eta kulturartekotasuna eta erlijioen arteko elkarriketa sustatzeko.

10. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak inguruko historia bitarteko indartsu gisa baliatzen du iragana norberak bizi izan balu bezala ulertzeko. Eta iraganari heltzeko bide bakar gisa ondarea hartzen du aintzat, beraren ondare ukigai zein ukiezinen bidez.

Hezkuntza Berrikuntzan sakontzen

Konpromisoa – Konpetentziak– Autonomia

11. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntza konpetentzietan oinarrituta dago, honako osagai hauek dituela: kognitiboak (jakitea), funtzionalak (jakitearen aplikazioa), pertsonalak (jarrerak) eta etikoak (jarrerak gidatzeko printzipioak). Horren arabera, garrantzi maila berekoak dira, eskuratzeko garaian, testuinguruari egokituriko ezagutzak, trebeziak eta jarrerak, sinesmenak, izaerak eta balioak.



European Association of History Educators

12. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak oinarrizko kompetentziak garatzen laguntzen du, hala elkarrekin bizitzen ikasi nola herritartasuna eta kontzientzia soziala, bai eta kultur kontzientzia eta adierazpena, ikasten ikastea, kompetentzia digitala eta egiten eta ekiten ikastea ere. Era berean, zeharkako kompetentziak ere barruan hartzen ditu, besteak beste, pentsamendu kritikoa, sormena, arazoaren konponbideak eta erabakiak hartzea.

13. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak pentsamenduaren oinarrizko trebezia eta kontzeptuak garatzea ahalbidetzen du: ulermen kronologikoa, historiaren xedea, lehen mailako iturrien ebidentziak, interpretazioa, kausa-ondorioak, aldaketa eta jarraipena, konparazioa eta alderaketa, enpatia, gertaera eta iritziak, ideologia-lerrokatzeak eta objektibotasuna. Halaber, funtsezko kontzeptu zenbait jorratzen ditu, adibidez: esklabotza, konstituzioa, sozialismoa edo depresioa.

14. Printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak arazoak eta gertaerak ulertzeko eta aztertzeko trebezia garatzen du; iturriak modu logiko eta koherente batean bildu, antolatu, ikertu eta ebaluatzeko trebezia, ondorioak ateraz eta ideia berriak sortuz. Era berean, ideiak eta argumentuak modu labur batean azalduz adierazpen-gaitasun egokia eskuratzeko lagungarria da.

15 printzipioa

Historia, ondare eta herritartasunaren kalitate handiko hezkuntzak barnebildu ohi ditu ikaskuntza autonomoa, motibazioa eta konpromisoa sustatzen dituzten pedagogia eta ebaluazio estrategiak; erantzukizun-sena, partaidetza aktiboaren pasioa, ekiteko grina sustatzen ditu, eta komunikazioa eta kooperazioa suspertzen ditu. Era berean, azpimarratzen ditu jakin-minaren garapena, autonomia, nazioarteko pentsaera irekia, ikerketarako espiritua eta independenteki pentsatzeko eta manipulazioari aurre egiteko ahalmena.



European Association of History Educators